



**MUSIKA**




**MODERNO  
ZAHARRA**

**FANZINE-LIBURU BAT**



**ARITZ  
BRANTON**



## HITZAURREA

Fanzine honetan musikaren gaineko artikulu, elkarriketa eta itzulpen batzuk aurkituko dituzu. The balde eta Entzun! aldizkarietan plazaratuak izan dira, 2011tik 2016ra bitartean.

Asmoa idazlan hauek lagunekin partekatzea da, besterik gabe. Eta lagunek, nahi izanez gero, nahi dituzten lagunekin parteka ditzatela.

Hemen aipatzen ditugun musikari eta talde guztiak bere garaian modernoak izan ziren. Orain ere bidean jarraitzen dutenak modernoak dira, nolabait. Ikusiko duzuen bezala, musikari eta talde gehienak punkiak dira, baina ez guzti-guztiak ez: inork ez du inoiz esango Tindersticks talde punkia denik, edo Syd Barrett punkia denik.

Gaiak eta solaskideak abaguneen eta nire gustuen arabera aukeratu ditut. Horregatik, bereziki, aipatutako bi aldizkarien zuzendariei –Koldo Almandoz eta Xabier Sagardia– eskerrak eman nahi dizkiet. Baita aldizkarien Eneko Etxeandia ilustratzaileari ere.

Lou Reed-ek 2014an esan zuen bezala: «Oraindik ere punkaren eraldatze- eta berritze-ahalmenean sinesten dut. Beti sinetsiko dut punkean.»

## AURKIBIDEA

-----

**Tom Robinson Band - 4**

*Zuen bezalakoengandik aske*

**John Lydon - 7**

*Ez naiz beti perfektua*

**Sex Pistols - 12**

*Paranoia gehiegi dago*

**Public Image Limited - 15**

*Istorio bakoitzak bi alde dauzka*

**Lou Reed - 18**

*Boskotea*

**The Velvet Underground - 21**

*«Oparia»*

**Richard Hell - 26**

*Belaunaldi hutsala*

**Tindersticks - 29**

•Gauzen muina, guztia nondik ateratzen den, ez da nire lekua  
•«Txokolatea»

**The Damned - 37**

*Hara, nor da paranoikoa?*

**Syd Barrett - 40**

*Burugabeak barre egiten du*

**The Slits - 43**

*Nork asmatu zuen neska arrunta?*

**The Jam - 46**

*«Metro geltokian gauerdian»*

**Manchester 1983-86 - 48**

**Gang of Four - 53**

*Armada erabilgarria da*

**Wire - 56**

•Do, re eta mi saihestuz, bluesak nota horietan jotzen dira eta  
•Zaharrak berri



**TOM ROBINSON BAND —**  
*Zuen Bezalakoengandik Aske*



2010eko abuztuan, Kataluniako gobernuak zezenketak debekatu zituen.

Batzuen arabera, debeku horrekin gizakiaren duintasuna berreskuratuko da neurri batean. Esaten dute ez dela egokia animaliak jendaurrean torturatzea eta tortura hori artea dela esatea.

Beste batzuen iritziz, berriz, korridak debekatzeak askatasuna murriztuko du, eta, gainera, are okerragoa dena, Espainiako kulturaren aurka doa.

Askatasuna, zer da? Eztabaidak Ingalaterrako abesti punk bat gogorarazi zidan, Tom Robinson Band-en «Power in the darkness» (Iluneko boterea), 1978an plazaratutakoa. Hasieran, taldekideen aburua adierazten du, eta, geroago, aurkakoa entzuten dugu, ironiaz josia.

*Askatasuna... zure askatasunari buruz ari gara  
Gorputzarekin zer egin nahi dugun aukeratzeko askatasuna  
Nahi duguna sinesteko askatasuna  
Anaiek elkar maitatzeko askatasuna  
Beltz eta zurientzako askatasuna  
Jazarpen eta beldurretik aske  
Ama eta emaztearentzako askatasuna  
Anaia Handiaren itaunketatik aske  
Bizitza nahi duzun bezala bizitzeko askatasuna*

(Kontalariaren ahotsa bestaldetik:) «Gaur, gobernu-sistema britainiarrarentzat, funtsezko erakundeak erasopean daude: eskola pribatuak, Lorden Ganbera, eliza anglikanoa, ezkontzaren instituzio sakratua, gure polizia bikaina ere ez dago gizartea hondatu nahi dutenetik salbu, eta «nahikoa da» esateko unea iritsi da, balio britainiar tradizionaletara itzultzeko ordua da: diziplina, obediencia, moralitasuna eta askatasuna. Hau da nahi duguna:

*Askatasuna gorri, beltz, gaizkile,  
prostituta, maritxu eta punki,  
futbol-hooligan, delitugile,  
lesbiana eta zabor ezkertiarrengandik  
Beltz zikin eta pakistandarretatik eta sindikatuetatik aske  
Ijito eta judutarrengandik aske  
Alferrentzi ezkertiar eta liberalengandik aske  
Zuen bezalakoe ngandik aske...*»

Tom Robinson Band-ek oso abesti indartsuak zeuzkan («Winter of '79», «2-4-6-8 Motorway», «Up against the wall»). Baina, beharbada, taldearen ekarpenik garrantzitsuena politika izan zen, musika baino. «Rock against racism» eta «Anti Nazi League» delakoetan parte hartu zuen, eta kanpaina horien eragin politikoa oso handia izan zen belaunaldi hartan. Matxismoa, homofobia eta arrazakeria salatu zituzten, eta, neurri batean horri esker, jarrera horiek onartezinak bihurtu ziren betiko milaka eta milaka lagunentzat.

Hori bai, Robinson-en ironia «Power in the darkness» abestian fina, eta, aldi berean, latza zen. Zuzentasun politikoaren korrontea Estatu Batuetan Europan baino lehen zabaldu zen, eta, ondorioz, hango kontzertu batzuetan, taldeak arazo handiak izan zituen. Entzuleek ez zuten ironia zela ulertzen, eta taldekideek agertokietatik korrika atera behar izaten zuten. Zuen bezalakoengandik aske...



JOHN LYDON –  
Ez naiz beti perfektua





John Lydon-ek —Keith Levine eta Jah Wobble-kin batera— 1979an sortu zuen Public Image Limited. Orduz geroztik, taldeak 19 kide izan ditu, 10 album plazaratu ditu, eta ehunka kontzertu eman. Donostian jo zuen azken formazioak maiatzean.

**Aritz Branton: Public Image gogoz ari da grabaketak eta kontzertuak egiten.**

JL: Bost urte eta erdi daramatzagu elkarrekin, birak etengabe egin ditugu, eta bira honetan gure album berria —zorgarria iruditzen zaiguna— zuzenean eskaini nahi dugu, abesti zaharrago batzuekin batera. Eta abestiak, batzuetan, jendearen arabera aldatzen ditugu.

**AB: Kontzertuan zehar, abesti-zerrenda aldatzen duzue?**

JL: Bada, bai, goitik behera. Batzuetan, ez dugu abesti bat egiteko gogorik. Baina energia hori publikoak ematen digu. Gure publikoa beste taldekide bat da, elikatzen gaituen energia da. Harremanari dagokionez, kontzertuak eliza baten modukoak dira, baina erlijiorik gabe. Gizakiok gizabidez portatzen gara, eta hori, rock-ekitaldi batean, oso ezohikoa da.

**AB: Rock-ekitaldi gehienak hotzak eta alde zurretik programatutakoak dira?**

JL: Bai. Pop-izarrek haien bertuteak erakutsi nahi dituzte, eta, oso distantzia handia dago haien eta publikoaren artean. Niri, bereziki, bestearen begiak ikustea gustatzen zait. Pertsonekin ari naizela jakitea gustatzen zait. Horrek hizkuntz-langa guztiek eraisten ditu, eta emozio-maila berean gaude, gizaki bezala.

**AB: Beraz, ingelesa ulertzen ez duen publiko batentzat jotzea ez da arazo bat.**

JL: Abestien hitzak eta musika uztartzen ditugu, transmititu nahi ditugun emozioak adierazteko. PIL-en abesti guztiak emozioen gainekoak dira. Abesti batzuk tristeak dira; beste batzuk, berriz, alaiak. Batzuk haserrez beteta daude, eta, beste batzuk, basatiak dira. Baina ez dago gorrotorik. Nire amaren heriotzaren gaineko abesti batzuk daude, eta disko-arraden karkofonia zoragarriarekin egiten dira.

**AB: «Death Disco», esaterako.**

JL: Bai, «Swan Lake» abestiarekin batu nuen, eta emaitza oso indartsua dela uste dut. Oraindik ere abesti horrek negarra eragiten dit kontzertuetan, benetan hunkitzen nau. Eta hori



entzuleengan ere ikusten dut: badakite zer egiten ari naizen, eta haiek, ere, pareko sentimenduak dituzte. Eta hori musika-rekin partekatzea, lorpen bat da niretzat. Musikak hori egin dezake.

**AB:** Gaur egun, letren % 90 «Heartbreak Hotel» edo «Heartmake Hotel»-en gainekoak dira. Gai horiek, noski, kontu garrantzitsuak dira gure bizitzan, baina hitz egiten dugunaren % 90ak ez du lekurik abestietan. Abestietan sartzeko egokiak diren bizpahiru gai esango dizkidazu?

**JL:** Hotelean piano-jotzaile bat izanez gero, abesti bera eskatzen diot beti: «Feelings». Eta, gehienetan, hondatzen dute. Baina hori da niretzat dibertigarriena eta hunkigarriena. Eta, niretzat, abestia zapuztu arte horren gaizki jotzeak daukan benetako emozioa ateratzen dio.

**AB:** Beraz, emankizun birtuosoetatik urruan gabilta...

**JL:** Bai, batzuetan birtuosoenak ez gaitu hunkitzen. Japoniarrek, esaterako, jazza ehuneko ehunean imitatzen dute, baina ez diote ezer gehitzen. Horrela, nota guztiak perfektuak dira, baina hori ez da lorpen handia. Eta, batzuetan, hobe da tonua pixka bat galtzea. Biolinek tonua pixka bat galtzen dutenean, nik maite ditut. Horrek bihotza hunkitzen dit. Beharbada irlandarren intonatzeke modua da!

**AB:** Zuen musikarekin harremanik inoiz izan ez duen bati, Mongoliatik iritsi berri den lagun bati, esaterako, nola deskribatuko zenioke zuen musika?

**JL:** Baliteke pertsona horrek PIL ezagutzea. Oso leku urrunetan jotzen dugu. Ijitoen moduko bizimodu eroa duten lekuetan oso harrera beroa egiten digute. Bertakotzen gara, antza. Baina ulertzen dizut. Egiten duguna nola azalduko nuke? Emozioak. Sailkapenik gabe. Ez dut inoiz musika lau hormaren barruan ezkutatzeke egin.

**AB:** Behin New Yorkeko abeslari batek esan zuen, egun txarretan ere, espero zuela barrea eragitea behintzat lortuko zuela.

**JL:** Nire ere horrelakoa naiz! Nire familian, tradizio irlandarretik hartu dugu ezkontzetan negar egitea, eta hilettan, berriz, barre. Gauzak hankaz gora jartzen ditugu; ondo begiratzen badiezu, orduan bizitza jasangarri bihurtzen da.

**AB:** Bizitza horrela ikusi behar dugu, hortaz: gauzak hankaz gora jarri.

JL: Bai, eta gure burua serioegi ez hartu. Eta gure buruaz barre egitea oso gauza ona da.

**AB: Eta umorerik onenetakoa.**

JL: Bai, bizitzan zehar komikoengandik eta umoretik gehiago ikasi dut intelektual zorrotz eta aspergarriengandik baino. Egia esan, normalean ez naiz umorerik ez dutenekin fidatzen. Horrelako pertsonak ez dute enpatiarik izaten.

**AB: Umorerik ez dutenak ez dira pertsona serioak.**

JL: Horixe bera!

**AB: Ez dakit galdera hau begien bistakoa den ala oso zaila, baina musika entzuten duzunean, zer da gehien hunkitzen edo pizten zaituena?**

JL: Musikak nire gustukoak diren lekutara eramaten nau, eta nik buruari aske ibiltzen uzten dio, erabat. Terapia moduko bat da, azken batean. Eta hori egiten ari naizela, edozein gauza gerta daiteke. Arriskutsua da, eta ikaragarri gustatzen zait. Ez dakit zer bururatuko zaidan. Musikari nire buru barruan margotzen uzten diot. Trantze batean sartzen nau, eta, horregatik, trantze-mugimenduarekin maitemindu egin nintzen. Suaren inguruan biluzki ibiltzen ginen garaira itzultzen gaitu, iraganeko, historiaurreko punturen batera.

**AB: Zuretzat kontzertu on bat zer da, eta nola neurtzen duzu?**

JL: Batzuetan okertzen naiz erabat, eta kontzertua txarra izan dela pentsatzen dut eta ez dugula publikoarekin konektatzea lortu. Baina, oholtzatik ateratzen garela, erantzuna kontrakoa izan dela ikusten dut. Ez naiz beti perfektua. Normalean, enpatia hori badago, eta antzematen dut: orduan badakit ona dela. Batzuetan, kristoren gaizki jotzen dugu, hori ere gerta daiteke, eta, hala ere, mezu zuzenak komunikatzen lortzen dugu. Kontua da oreka bat lortzea. Alde batetik, nota perfektuak eta jotzeko trebetasuna, eta, bestetik, emozioak aske ibiltzen uztea. Bi puntu horien artean ibiltzea da kontua. Muturretara joanez gero, ez gabilta ondo.

**AB: Hortaz, oholtzan grabatuta dagoena besterik gabe jotzea izango litzateke okerreana.**

JL: Bai. Heriotzaren musua izango litzateke, eta azkar batean erretiratuko nintzateke. Eta erabat lotsatuko nintzateke. Baina Duracell pilen untxia naiz ni: aurrera eta aurrera noa!



Argazkilaritza: Ion Markel / Ibai Arrieta



**SEX PISTOLS**

*Paranoia gehiegi dago*

---



Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Alemaniako Errepublika Federalak Berlingo Hesia eraiki zuen, Sobietar Batasunak aginduta. Europako mendebaldean, komunisten kontrako beldurra eta paranoia izugarria zen, eta hesia dugu horren ikur nagusia.

Giro eta garai hartan Sex Pistols taldea sortu zen Londen. Nahiz eta askok horrela esan, Sex Pistols ez zen lehenengo punk-taldea izan (haiek baino lehen, Velvet, Stooges, Neu! eta beste hainbat punk edo aurre-punk talde aritu baitziren musikan), ezta azken rock'n'roll taldea ere. Gehienon iritziz, taldearen musika indartsua eta ederra zen; letrak, zirikatzaileak. Inork ez luke ukatuko Sex Pistols-en oihartzuna ikaragarri handia zela, musikan zein gizartearen oro har.

Beti izan da taldeari buruzko eztabaida bat: "benetako" talde bat zen ala Malcolm McLaren managerraren asmakizuna. Argi dago McLaren-ek oso eragin handia zuela taldean, eta neurri handi batean, hark kontrolatzen zuen. Aldi berean, musika zein letrak taldearenak ziren, eta hori ez da kontu makala. Bestetik, zer da "benetako" talde bat? The Beatles iragarki bati esker elkartu ziren, eta Bill Wyman haren anplifikadoreari esker sartu zen The Rolling Stones taldean.

Taldea sortu eta bi urtera, 1977ko udan, «Holidays in the Sun» (Oporrak eguzkipean) grabatu zuten:

*Opor merkea besteen pobreziak ingurututa*

*Ez ditut oporrak eguzkipean pasatu nahi*

*Belsen Berrira joan nahi dut*

*Historia pixka bat ikusi nahi dut*

*Orain ekonomia nahiko ona dut eta*

*Orain arrazoi bat badut, orain arrazoi bat badut*

*Orain arrazoi bat badut eta oraindik itxaroten ari naiz*

*Orain arrazoi bat badut, orain itxaroteko arrazoi bat badut:*

*Berlingo Hesia*

*Doinu inguratzaile bat bi hazbeteko hesi batean*

*Komunisten deiaren zain nengoen*

*Ez nuen eguzkia eskatu eta Hirugarren Mundu Gerra eman zidaten*

*Hesi gainetik begiratzen ari naiz*

*Eta nire so daude*

Gau eta egun tinko begiratzen didate  
Ez nuen inolako arrazoirik hemen egoteko  
Eta orain arrazoia badut ere, ez da benetako arrazoia  
Eta zain nago  
Berlingo Hesian

Berlingo Hesia gainditu behar dut  
Ez dut ulertzen  
Hesia gainditu behar dut  
Berlingo Hesia gainditu behar dut  
Berlingo Hesia gainditu egingo dut

Klaustrofobia bai, paranoia gehiegi dago  
Ez kutuko leku gehiegitan sartu nintzen lehen  
Eta orain arrazoia badut ere, ez da itxaroteko moduko arrazoia

Hesiaren gainetik jauzi egin behar dut  
Ez dut hau batere ulertzen  
Film eskas baten bezalakoa da  
Elkarriketa merkeak, dekoratu merkeak  
Hesia gainditu behar dut, Berlingo Hesia gainditu nahi dut  
Agur egin osoan, Berlingo Hesia gainditu dugu  
Ez dut hau batere ulertzen  
Berlingo Hesiaren gainetik jauzi egin nuen  
Jendeak agurtzen ninduen egun osoan, Berlingo Hesia gainditu  
Ez dut hau batere ulertzen  
Mesedez, ez nazazu itxaron

Garaiko klaustrofobia, paranoia eta beldurra adieraztearekin batera, Rotten-en letrek taldearen egoera deskribatzen dute: deskonposizioa. Hortik gutxira, taldea desegin egin zen, Kaliforniako oholatza bat gainean, erabateko anabasan.

«Oporrak eguzkipean» abestiaren letrak oso adierazgarriak eta indartsuak dira, baita erabat nahaspilatsuak ere. Kontzientziaren erreka erabilita, gizarte oso baten hondamena oroitarazten digu abestiak. Baita taldearena ere.



**PUBLIC IMAGE LIMITED —**  
*Istorio bakoitzak bi alde dauzka*  
-----



Zein da hezibide egokiena? Portaera formalari eustea ala besteengan pentsatzea, haien interesak eta iritzia kontuan hartzea?

Musikaren abestirik ederrenetako batean, John Lydone abeslariak bi aukerak erakusten dizkigu. Batetik, portaera finez agurtzen gaitu hasieran («Hello! Hello!») eta gizabidez agurtzen gaitu amaieran («Goodbye!»). Bestetik, izugarrizko erretolika bat bota ondoren, istorio bakoitzak bi bertsio dauzkala onartzen du («Two sides to every story»).

Public Image Limited (PIL) taldea sortu baino lehentxeago, hilabete batzuk lehentxeago, Lydon «Rotten» (ustelduta) ezizenaz ezaguna zen, eta Sex Pistols taldearen abeslaria izan zen. «Public Image» (Irudi publikoa) abestian Sex Pistols taldean gertatu zitzaiona kontatzen digu, eta, batez ere, Malcolm McLarenen managerraren manipulazioa.

Sex Pistols-ekin, McLarenen asmoa rock'n'rolla betiko apurtzea izan zen. Baita diru mordoa lortzea ere, jakina. Eta, hori egiteko, taldekideak txotxongilo gisara erabili nahi zituen. Zoritxarrez —McLaren-entzat—, eta zorionez —guretzat—, taldekideak musikazaleak ziren, eta hori Sex Pistols-en musikan nabaritzen da. Horrez gain, Rotten/Lydon ez zen inoren txotxongiloa izango.

#### *Irudi publikoa*

*Kaixo, kaixo, kaixo ... Kar, kar, kar!*

*Ez zenuen inoiz nik esaten nuena entzuten  
Janzten nuen arroparegatik ikusten ninduzun bakarrik  
Ala zure interesa sakonagoa al zen?  
Nire ilearen koloreak izan behar zuen.*

*Ez zegoen inoiz argi zer nahi zenuen  
Irudiaren atzean ezjakintasuna eta beldurra zeuden  
Haren makina publikoaren atzean ezkutatzen zinen  
Betiko ereduak jarraitzen diezu oraindik*

*Istoria bakoitzak bi alde dauzka  
Norbaitek gelarazi behar ninduen*

*Ez naiz hasieran bezalakoa  
Ez dut ni jabetzatzat tratatzea onartuko*

*Istorio bakoitzak bi alde dauzka  
Norbaitek gelarazi behar ninduen  
Ez naiz hasieran bezalakoa  
Ez da Monopoly joko bat*

*Irudi publikoa  
Nahi zenuena lortu zenuen  
Irudi publikoa nirea da  
Nire sarrera da,  
Nire sormena  
Nire irteera ikusgarria,  
nire agurra...  
Agur!*

Lydon-en letran, gehienetan bezala, paranoia agertzen da -gogora dezagun «Holidays in the sun» abestiaren «There's too much paranoia» (paranoia gehiegi dago)-. Zenbait lerrotan, ez dago argi abestiaren pertsonaia Lydon ala McLaren den, esaterako. Hala ere, paranoikoa izateak ez du esan nahi jazartzen ez gaituztenik, eta McLarenen manipulazioa oso agerikoa zen.

Baina lortu zuen Sex Pistols azken rock'n'roll taldea izatea eta rock'n'rolla apurtzea? Askoren arabera, PIL lehenengo post-rock'n'roll taldea izan zela. Hala ere, interpretazio hori sinpleegia edo okerra da. Hainbat post-rock'n'roll talde egon ziren Sex Pistols baino lehen ere -hala nola Can, Neu!, Kraftwerk-, eta Lydon bera ere haien miresleen artean zegoen.

PIL taldearen sortzaileak, Lydonez gain, Keith Levine gitarra-jotzailea eta Jah Wobble baxu-jotzailea izan ziren. Lehenengo bi diskoak berritzaileak dira, ederrak. Hiru kideen ekarpenak oso interesgarriak dira: Lydonen letrak eta ahoskera argia, Levenen testura hipnotikoak, Wobblen erritmoek biribil ikusezinetan mugiarazten gaituzte.



LOU REED —  
*Boskotea*  
-----



Aforismoen arabera, guztion laguna eta inorena ez, eta politikaz pentsatzen ez duela esaten duena, baina eskuindarra. Lou Reed-en abestirik onena «Walk on the Wild Side» dela esaten duenak gutxi ezagutzen du Lou Reed-en lana. Eta zertarako ezagutu Lou Reed-en lana? Hona hemen bost arrazoi:

1/

«**White Light White Heat**». Bi egunetan grabatu zuen diskoa, eta hori nabaria da: talde baten disko gordina da, espontaneoa dirudi, eta, aldi berean, oso originala da. Gordina, zaratatsua, experimental eta ikagarri ederra. Anabasa islatzen du. «The Gift» abestiaren ipuin beltza. «Here She Comes Now» abestiaren lirismoa. «Sister Ray»-en, bada, dena! «Sister Ray» goizean goiz jarri, bolumena topera, eta egunarekin gozatu.

2/

«**Berlin**». Pianoa, ahotsak, gitarrak eta orkestra. Nostalgia, tragedia, herri/maitalde/gaztaro-mina... Hiri bat baino gehiago marrazten dira diskoan, hiru pertsonaia baino gehiago, egoera eta sentimendu anitz. «Lady Day» epikoa. «Caroline Says II» abestiaren tristezia eta edertasuna. «Sad Song» sinfoniaren amaiera.

3/

«**The Blue Mask**». Berriz ere talde batekin agertzen zaigu, eta, kideen artean, besteak beste, Fernando Saunders eta Robert Quin ditugu. Lagun minei, emazteari eta bere buruari buruz abesten digu, serio, eta, tarteka, dibertigarri. «My House» abestiak oso giro berezia sortzen digu. «The Heroine»-n zuzentasuna. «Heavenly Arms»-en amodioa.

4/

«**New York**». Gitarrek txilinak ematen dizkigute, eta musika mota anitz nahasten ditu. Gizarte-kritika ere ageri zaigu: esplotazioa, droga-saltzaileak, politikari hipokritak eta erlijioa agerian uzten dizkigu. «Dirty Blvd»-en kontakizuna eta korua. «Sick of You»-ren gogaitasuna. «Dime Store Mystery»-ren edertasun atonala.

5/

«**Berlin**». Hogeita hamabost urte beranduago, disko osoa jo zuen berriro hainbat kontzertutan, eta Julian Schnabel-ek filmatu zuen New Yorken. Zenbait musikarik jatorrizko diskoan ere jo zuten, hala nola Steve Hunter gitarra-jotzaile zoragarriak. Schnabel-en irudiak eta zuzendaritza egokia baino ego-kiagoak dira. Bandak diskoaren bertsio fidela egiten du, oso, eta, aldi berean, kontzertua freskoa eta espontaneo da. Soloak eta inprobisazioak ere ez dira falta, orkestra ederki aritzen da, eta abesbatzaren partea ederra da. Eta ezin duzue galdu Anthony Hegarty-ren «Candy Says». Miraria benetan.

Bai, Lou Reed-ek hasieran aipatu dugun abesti hori idatzi zuen, baita askoz gehiago ere. Gozatu eta partekatu.



**THE VELVET UNDERGROUND**

*Oparia*

-----



Lehendabiziko narrazio luzeak errimaz idazten ziren, ziur aski, poetek musikaz lagunduta errezita zitzaten (Homeroren Iliada eta Odisea, kasu). Gerora, erromantzeek, Erdi Aroko narrazioek, kantatek eta operek ohitura horri jarraitu diote.

Rock-musikan ordea, poema laburrak badaude, baina iraupen luzeko kantu-narrazio oso gutxi gauzatu da. The Velvet Underground-en «The Gift» (Oparia) horietako bat da. Lou Reed-ek idatzita eta John Calek errezitatutako kantu-narrazioa dugu, eta ipuin klasikoetan bezala, amaieran sorpresa bat eskaintzen du.

—

Waldo Jeffers-ek ezin zuen gehiago jasan.

Abuztuaren erdialdea zen, eta bi hilabete baino gehiago zeramatzan Marsha gabe, hortaz. Bi hilabete, eta askotan irakurri zituen hiru gutun eta bi distantzia-handiko dei garesti baino ez zituen. Ikasturtea bukatzean, Marsha Wisconsinera eta Waldo Locustera (Pennsylvania) itzuli ziren, eta egia da neskak gutxi gorabehera fidel izango zitzaiola zin egin zuela. Noizean behin, mutilen batekin geratuko zen, baina ondo pasatzeko bakarrik. Fidel izango zitzaion.

Baina, azken aldian, Waldo kezkatzen hasita zegoen. Kostata lokartzen zen gauez, eta, loak hartzen zuenean, amesgaiztoak izaten zituen. Gauean esna geratzen zen ohean, bira eta bira edredoiaren azpian, eta negar batean Marsha irudikatzen zuen, promes sakratuak edariaren eta neandertalen baten etorri suabearen erruz bertan behera utzita, ahanzte sexualaren azken fereketan galduta. Gizaki baten buruak ezin zuen hainbeste jasan.

Marsharen desleialtasuna irudikatuz bizi zen. Egunean zehar gehiegikeria sexualen ameskeriak buruan sartzen zitzaizkion. Eta mutil haiek ez zuten Marsha ondo ulertuko. Waldok, Waldok bakarrik ulertzen zuen. Senak lagunduta, Marsharen psikearen bazter eta zirrikitu guztiak ulertzen zituen. Barrea eragiteko gai zen. Marshak Waldo behar zuen, baina ez zegoen haren ondoan.

Ideia Mozorro Desfilearen aurreko ostegunean bururatu zitzaien. Edelsontarren belardia moztu berri zuen, dolar bat eta berrogeita hamar zentimo kobratuta, eta postontzian begiratu zuen, Marshak gutun laburren bat behintzat bidali zion ikusteko. Amalgamated Aluminum Company of America-ren iragarkia baino ez zegoen, eguzki-oihalen bat behar zuen galdetuz. Haiek, behintzat, harekin arduratzen ziren.

Enpresa New Yorkekoa zen. Postaz, edozein lekutara joan zintezkeen. Eta orduan ideia otu zitzaion bat-batean. Ez zeukan Wisconsinera ohiko moduan joan-etorria egiteko adina dirurik, ez, baina zergatik ez bere burua postaz bidali? Erraz baino errazagoa zen. Pakete batean egingo zuen bidaia, banaketa bereziko zerbitzuarekin.

Hurrengo egunean, Waldo supermerkatua joan zen behar zuen tresneria erostera. Zinta amerikanoa, grapagailu bat eta haren tamainakoa pertsona batentzako moduko kartoi-kutxa ertaina erosi zituen. Mugimendua gutxi jasanez gero, pentsatzen zuen gustura samar joango zela. Aire-zulo batzuk, ur pixka bat, beharbada mokadutxo batzuk, eta, ziur aski, turista-txartelarekin bezala joatea bezain atsegina izango zen.

Ostiral arratsalderako, Waldo prest zegoen. Kutxan sartuta zegoen, eta postetxekoek esan zioten hiruretan joango zirela haren bila. Paketearen kanpoaldean "Hauskorra" idatzi izan zuen, eta, barruan uzkurtuta zihoala, goma-aparezko bigungarriaren gainean eserita, Marsharen aurpegia irudikatzen saiatu zen, atea harriduraz eta pozaz irekitzen. Paketea ikusiko zuen, banatzaileari eskupekoa emango zion, paketea irekiko zuen, eta, azkenik, Waldo ikusiko zuen hor. Musu bat emango zion, eta gero, beharbada, pelikula bat ikusiko zuten. Zergatik ez zuen ideia lehenago izan?

Bat-batean esku zakar batzuek paketea hartu zuten, eta Waldo igotzen zutela sentitu zuen. Kolpe batekin lurreratu zen, eta kamioia abiatu zen.

Marsha Bronsonek ilea apaintzen bukatu berri zuen. Oso asteburu gogorra zen. Gogoratu behar zuen ezin zuela horrela edan. Baina Billek ez zion ezer gaitzetsi. Dena amaitu ondoren, oraindik errespetatzen zuela esan zion, eta, azken batean, gauza naturala zen, eta, eta maite ez zuen arren, txera zion. Eta, azken batean, helduak ziren. Ene, Billek asko



irakats ziezaiokeen Waldori... baina hori guztia aspaldiko kontua iruditzen zitzaion.

Sheila Klein, Marsharen lagun minik minena, portxeko atetik sartu zen sukaldean. «Ai, ama, hau sargoria kanpoan.»

«Ba, ulertzen dizut, nazkagarri nago!» Marshak setazko ertzak zituen kotoizko txabusinaren gerrikoa estutu zuen. Sheilak hatzarekin sukaldeko mahai gainean zeuden gatz ale batzuk hartu zituen, mihira eraman eta keinu bat egin zuen. «Gatz pilula hauek hartzeko esan zidaten, baina,» eta sudurraren keinua egin zuen, «baina botaka egiteko gogoa ematen didate.» Marsha kokospean kolpe txikiak ematen hasi zen, telebistan ikusi zuen ariketa bat. «Ama, hori ezta aipatu ere.» Mahaitik altxatu zen, harraskara joan, eta bitamina arrosa eta urdinez betetako botila bat hartu zuen. «Bat nahi? Xerra baino hobeak omen dira,» eta, orduan, saiatu zen belaunak ukitzen. «Ez dut uste daikiririk berriro edango dudarik.»

Ahaleginari utzi zion, eta telefonoa gainean zuen mahaitik gertuago eseri zen. «Beharbada Billek deituko dit,» esan zuen Sheilaren begiradari erantzunez. Sheilak kutikula bat hozkatu zuen. «Atzokoaren ondoren, uste nuen ez zenuela berriro ikusiko.» «Badakit zer esan nahi duzun. Ene, olagarroa bezalakoa zen! Eskuak leku guztietan.» Eskuak altxatu zituen, haren burua zuritu nahian. «Kontua da, denboratxo bat pasata, borroka egiteaz nekatzen zarela eta, badakizu, ostiralean eta larunbatean ez nuenez gauza handirik egin, zor nion, nolabait. Badakizu zertaz ari naizen.» Hazka egiten hasi zen. Sheilak ahoa eskuarekin estali zuen, barreka. «Bada, egia esan, ni berdin sentitzen nintzen, eta, une bat pasatu ondoren,» eta orduan aurrera makurtu eta isil-gordeka esan zion, «nik ere egin nahi egin nuen!». Orduan, ozenki hasi zen barrezka.

Eta istant horretan, Clarence Darrow Postetxeko Jameson jaunak egurrezko etxe handiaren txirrina jo zuen. Marsha Bronsonek atea ireki zuen, eta gizonak paketea sartzen lagundu zion. Marshak paper zatitxo hori eta berdeak sinatu zizkion, eta egongelan zegoen amaren diru-zorrotik hamabost zentimo atera zituen, eskupekoa emateko. «Zer uste izango dela?» Sheilak galdetu zion. Marsha zutik zegoen pakete aurrean, besoak bizkarrean antxumatuta. Egongelaren erdian zegoen kartoizko kutxa marroiari tinko begiratu zion. «Ba, ideiarik ez.»

Paketearen barruan, Waldo zirraraz dar-dar egiten hasi zen, ahots motelduak entzutean. Sheilak azazkala kutxaren erdi-ko zinta amerikanotik pasatu zuen. «Zergatik ez duzu igorlea begiratzan, ikusteko nork bidali duen?» Waldok bere bihotzaren taupadak entzuten zituen. Oinkaden bibrazioa sentitzen zuen. Laster izango zen.

Marshak kutxa inguratu zuen, eta tintaz trakets idatzitako etiketa irakurri. «Ai, ama, Waldorena da!» «Babu hori!» Sheilak esan zuen. Waldok, itxaropenaz dar-dar egin zuen. «Beno, irekitzea ere bazenuke» Sheilak esan zuen. Biak hegal grapaduna altxatzen saiatu ziren. «Arraioa», esan zuen Marshak, kexuka, «iltzeekin itxi du.» Hegaletik tiratu zuten berriro. «Ama, zulagailu elektriko bat beharko dugu hau irekitzeko!» Berriro tiratu egin zuten. «Ezin zaio heldu.» Gelditu ziren, arnases-tuka.

«Zergatik ez dituzu guraizeak erabiltzen?» proposatu zuen Sheilak. Marsha sukaldera korrika joan zen, baina josteko guraizeak baino ez zituen aurkitu. Eta orduan, gogoratu zuen aitzak sotoan zituela erremintak. Behera joan zen azkar, eta, itzuli zenean, labana industrial handi bat zuen eskuan. «Hau da aurkitu dudana onena.» Arnasestuka zegoen. «Tori, zuk egin. Erdi-hilik nago.» Peluxezko sofa handiaren gainera bota zen, eta arnasa bota zuen ozenki. Sheila saiatu zen zinta amerikanoaren eta kartoizko hegala artean zirrikitu bat zabal-tzen, baina labanaren ahoa handiegia zen, eta ez zegoen modu-rik. «Pikutara joan dadila gauza hau!» oihu egin zuen, erabat amorratuta. Orduan, irribarrez, esan zion «Badut ideia bat.» «Zer?» galdetu zion Marshak. «Begiratu,» erantzun zion Sheilak, hatz batekin kopeta ukituz.

Paketearen barruan, Waldo zirraraz hain zegoen paralizatu-ta, ezen ia ezin baitzuen arnasa hartu. Azalak azkura egiten zion beroarengatik, eta bihotzaren taupadak eztarrian senti-tzen zituen. Berehala izango zen. Sheila erabat tente jarri zen, eta paketearen beste aldera joan zen. Orduan, belaunikatu, labanaren bi heldulekuei eutsi, arnasa sakon hartu, eta xafra luzea paketearen erditik sartu zuen. Zinta amerikanoa, kartoia, enbalajea eta -zart!- Waldo Jeffers burua zeharka-tu zituen, zeina pixka bat apurtu zen eta arku erritmiko gorri txikiak dardarazi zituen leunki goizeko eguzkipean.

**RICHARD HELL —**  
*Belaunaldi hutsala*  
-----





Punk-musikariek gizartean gaizki sentitzen zirela adierazi zuten askotan. Richard Hell (Rikardo Infernu) abeslariak horri buruz abestu zigun 1977ko «Blank Generation» (Belaunaldi hutsala) abestian.

Gizartean bizi gara, eta sarritan, hori ez da gure gus-tukoa. Justizia falta, pobrezia, azalkeria, kontsumismoa... gizartearen ezaugarri askok gizartetik kanpo bizitzeko gogoia eman diezagukete. Badakigu gure bizimodua halakoa dela; baina, ezer gutxi egin dezakegulako hori konpontzeko, pentsa dezakegu ez dugula hemengoak izan nahi, nahiz eta hemengoak izan eta arazo horrek konponbide zaila izan.

Zoritxarrez, gizartearekin ez identifikatze hori ez da berria. Gainera, unibertetsala da. Punk-musikariek gizartean gaizki sentitzen zirela adierazi zuten askotan. Olerkari fina da Hell, eta abesti honetan, zertzeladez, sentsazioak eta ideiak sentiarazi zizkigun.

*Jaio baino lehen, «hemendik atera nazazue» esaten nuen.  
Behin jaiota ere, urpegia eskuratzea arriskutsua da.  
Ispiluak egiten duena begiratzea liluragarria da,  
baina, afaltzean, hormaren parean jartzen dut platera.*

*Hirukiak erortzen ziren leihotik gertu, eta medikuak madarikazioa  
bota zuen:  
jendeak ahaztuta zeukan marrazki biziduna zen.  
Erizainak galtzariak txukundu zituen lehenengo arnasa jaso nuenean.  
Medikuak ezarria harrapatu zidan, eta garrasi egin zuen: «Jainkoaren  
kontsolazio-saria da!»*

*Telebista ezpainen kontra heldu, airea diruz beteta.  
Gero, eskaileran gora eraman eta lursail huts batera bota.  
Pentsamenduaren ildoak galdu eta zure besoetan erori  
eta zeharkatzen ditugun puntu ibiltari ikusi burua makurtuta.*

*Belaunaldi hutsalekoa naiz,  
baina edozein unetan hartu edo utz dezaket.  
Belaunaldi horretakoa naiz baina  
baina edozein unetan hartu edo utz dezaket.*

Richard Hell aitzindaria izan zen punk-mugimenduan. Haren letrek gizartea zalantzan jarri zuten. Rock-musika gordina eta basatia egin zuen. Inor baino lehen arropa kateorratzekin konpontzen/apaintzen hasi zen. Ingalaterrako taldeak agertu aurretik, oso janzkera eta jarrera baldarra eta inkonformista zituen, eta haren eragina ikus daiteke Ingalaterrako talde guztietan.

Television-en taldekidea izan zen, baita The Heartbreakers-ekoa ere, eta The Voidoids ('Hutsuneizakiak') sortu zuen, haren abestiak nahi zuen moduan egiteko. Malcolm McLaren-ek, Sex Pistols-en managerrak, erreklutatu nahi izan zuen Sex Pistols-en abeslari izateko. Hell-ek ezezkoa eman zion, eta, horri esker, Johnny Rotten-ek (Jontxo Ustelak) postua lortu zuen.

Hell-en arabera, «Belaunaldi hutsala» abestia ez zen ondo ulertu garai horretan. Haren asmoa edozein gauza izan gaitezkeela adieraztea izan zen, baina gehienek ezin garela ezer izan ulertu zuten. Sarritan, antzera gertatu zen punk-mugimendua osoarekin: nahiz eta abesti asko oso ezkorrak izan, mugimendua-ren ezaugarriarik garrantzitsuenetako bat askatasunaren aldarrikapena izan zen, aldi berean.

**TINDERSTICKS –**

*Gauzen muina, guztia nondik  
ateratzen den, ez da nire lekua*

-----





«Gauzen muina, guztia nondik ateratzen den, ez da nire lekua» abestu zuen Stuart Staplesek, Tindersticks taldearen abeslariak, 1993ko «City Sickness» (Hiriaren gaixotasuna) abestian. Gaur arte, ildo beretik jarraitzen du taldeak: oraindik ere, ia beste musikari guztiek jarraitzen duen ildoetatik kanpo doa Ingalaterrako talde hau. Taldea 1991n sortu zen, Nottingham-en, eta orduz geroztik, zortzi album plazaratu dituzte. Azkena, aurten kaleratu dute: «Falling Down a Mountain» (Mendi batetatik erortzen).

«Tindersticks» abarrak dira ingelesez, hots, egurretarako erabiltzen diren zuhaitzen edo zuhaixken adarrak. Sute handiak adar txikiekin hasten dira. Taldearen izenaren esanahiak, hortaz, adieraz dezake melodia sinpleen bitartez abesti ederrak konposatzen direla. Estilo berezia du taldeak. Konposizioek liraintasuna, sentimenduak, eta, noizean behin, ironia eta umorea dituzte ezaugarri. Tindersticks-en doinu berezia instrumentazioaren, Staples-en ahots sakon eta ederraren eta taldekideen gustu sofistikatuaren bidez azal daiteke.

David Boulter-ekin, teklatu-jotzaile eta taldearen konpositoreetako batekin, hitz egin dugu.

**Aritz Branton: Zortzigarren albuma atera berri duzue, ehunka kontzertu egin dituzue, eta orain bi taldekide berri dituzue. Baina, oraindik ere, taldeak bere betiko estilo berezia dauka.**

David Boulter: Neurri handi batean, Stuarthen ahotsarengatik eta parte hartzen dugun guztion jarrerarengatik da. Kontua ez da agertokian gaudenean jendea guri so egotea, ezta ospea lortzea ere, barnean dagoen eta atera behar dugun gauza bat baizik. Ez da erraza asmo hori bera daukan talde bat aurkitzea. Nerabezaroan, musikak elkartu gintuen Stuart, Neil eta hirurok, eta oraindik elkarrekin gabilta musikari esker.

**AB: Nabaritzen da taldekide guztiek parte hartu dutela album berrian, «The Hungry Saw» diskoan, alegia.**

DB: Irekitasun gehiago eta sormen askeagoa ditugu orain, lehen baino. «The Hungry Saw» biran abesti asko idatzi gintuen, aldageletan, eta ideiekin saiakuntzak egituen. Betiko Tindersticks-en musika da, eta, aldi berean, etorkizunean mugitzeko espazioa dago.

**AB:** Erraza izan zen «Falling Down a Mountain» egitea?

**DB:** Hasieran, bai. Abesti guztiak gure gustukoak ziren; baina, gero, guztiak elkartzea zaila izan zen, istorio baten bila gabiltzalako beti. 16-17 abesti genituen, eta batzuk galdu behar genituen album on bat, hau da, osotasuna lortzeko. Zerbait ezberdina gertatzen ari da gure musikarekin une hone-tan, eta gure hurrengo urratsa zirraragarria eta interesgarria izango da. Gure lehenengo diskoa bezalakoa da, nahi duen beza-la dabil, doinu ezberdin asko dauzka.

**AB:** Disko bakoitzean abestien artean aniztasuna egotea nahita bilatzen duzue?

**DB:** Uste dut sen onekoa dela. Hasieran, gure diskoak soi-nu-bandak bezalakoa zirela esaten zen. Ez zen ahalegin kon-tziente bat, baina album bakoitzak istorio bat kontatzen zuen. Horregatik, ahotsik gabeko piezak dituzte, baita duoak ere, ahots ezberdinak entzuteko. Guretzat, album bakoitza istorio bat da.

**AB:** «Waiting for the Moon» albumean, «My Oblivion» abes-teiak doinu malenkoniatsu du, eta, gero, «Just a Dog» abestiak jarraitzen dio. Bigarren abesti horrek, nahiz eta letra oso alairik ez izan, oso doinu alaia dauka.

**DB:** Stuartek pentsatzen zuen «My Oblivion» oso abesti bere-zia eta ederra zela, eta, abesti horren ondoren, beste abesti bat beharrezkoa zela, sentimenduak berehala aldatzeko. Horre-la, abesti horiek irla txikiak dira diskoan. Azken diskoan, «The Other Side of the World» abestia bi ahotsik gabeko piezen artean dago, eta, horrela, arnasa hartzeko espazioa dauka.

**AB:** Nola prestatzen dituzue abestiak, edo abestien ideiak, grabatu baino lehen?

**DB:** Ideiarik onenetako batzuk zehaztugabeak dira, eta, gero, lagunok erantzuna ematen diegu eta espero ez genuen zer-bait ateratzen da. Horren adibide da album berriaren lehenen-go kanta, «Falling Down a Mountain». Stuartek letrak, erritmo bat, doinu bat eta baxuaren melodia egiteko ideia batzuk zeuz-kan, eta dena bi ordutan osatu zen. Zuzendu egin genuen pix-ka bat, ahots batzuk gehitu genituen, tronpetak ere bai, baina oinarritzko grabaketa oso azkar egin genuen.

**AB:** Abesti alai bat egitea, hutsala edo topikoa izan gabe, oso zaila da, baina Tindersticks-ek oso ondo lortzen du abesti batzuetan; esaterako, «Harmony around my Table».

**DB:** Oso abesti zalantzatia da, ia modu ezkor batean idatzi zen, baina oso jarrera baikorra dauka doinuan: gauzak ondo aterra daitezela nahi duzu, nahiz eta orain horrela izan daitekeen ez jakin. Dantzazartzen gaituzten soul musikaren abesti asko oso tristeak dira, harremanen porroten buruzkoak dira; baina, aldi berean, erritmo berezi bat daukate eta oso sentimendu eder bat, eta ondo sentiarazten gaituzte. Horregatik, besteak beste, soul musikak betidanik liluratzten gaitu. Hunkitzen gaitu, baina, aldi berean, badakigu mendeetan zehar beltzek jasandako sufri-menduan oinarritzen dela.

**AB:** «Txakurra naiz, besterik ez, eta gizon bat izateko ikasten dut. Txakurra naiz, besterik ez, eta ulertzen ez ditudan gauzak ikasten ditut.» Oraindik ikasten duzue musikarekin?

**DB:** Zalantzarik gabe. Urteetan zehar, musikari askorekin jo dugu. Haien artean heziketa klasikoa jaso duten batzuk badaude; baina, kasu batzuetan, pertsona horiek ez dute sentimendu handirik sartzen musikan. Nota bakoitza jo dezakete, hori oso erraza zaie. Baina guri jarraitzeko animatzen gaituen gauza bat musikaren zailtasuna da, borrokatu egin behar izatea lortu nahi duguna lortzeko, pianoaren zati bat ala abesti eder bat idaztea izan. Ez da erraza, eta horregatik jarraitzen dugu.



TINDERSTICKS —

*Txokolatea*

-----



Ostiral arratsalde ezin hobeia izan zen. Lana ia bukatuta geneukan. Apaintzen ari ginen etxea gizontxo zahar batena zen. Traje txalekodun batez jantzita zebilen beti, eta, ziur aski, soldadutzatik lizentziatu zenetik zeukan.

Bazirudien beti zegoela postetxerako bidean, paper marroiz eta lokarriz bildutako paketeak besazpian. Txikoria ateratzen zigun portzelanazko kikaretan, eta custard cream gailetak plateretan. Gurasoen etxea zen: urte batzuk lehenago zendu ziren, bata bestea baino aste gutxi batzuk geroago. Gizona ez zen inoiz beste inorekin bizi izan, ezta beste etxe batean ere. Neure buruari galdetzen nion zer gertatuko ote zitzaion etxeari gizona zendu ondoren. Nire gelara heltzeko ibilbidea oso laburra zen. Garai batean, etxea agurearena bezalakoa izan zen; baina, ordurako, gela bakarreko hainbat pisutan zegoen banatuta. Eta, iraganean, haren etxeak bezala, lorategi handia izan zuen. Gaur egun, ordea, solairu bakarreko eraikin moderno bat zegoen bertan, eta, haren barruan, haginlari baten eta podologo baten kontsultak. Nire gelan sukalde elektrikoa zegoen; neguan gela berotzeko baino ez nuen erabiltzen. Haren ondoan harraska bat; gainean, beirazko apal bat, eta apalaren gainean hortzetako eskuila eta kaxa bat Marlboro. Bazter batean, mahai bat eta aulki bat, eta, erdian, metro karratu bat inguru zegoen libre. Ohe azpian egurrezko tiradera bat zegoen; han nituen nire arropa ia guztiak, eta, gainerakoak, aulki gainean.

Disko-jogailu bat neukan, eta, haren azpian, diskoz betetako kutxa batzuk. Lehenengo eta bigarren solairuko bainugela nire gelaren aurrean zegoen. Ur-neurgailu batek 50 penikeko txanponak hartzen zituen. Ordu erdiz itxaron behar genuen ura berotu arte, bai eta adi egon ere, kabroi batek bainua lapurtu ez zezan.

Komun bat zegoen goian eta beste bat kanpoan, baina ordurako inork ez zuen kanpokoa erabiltzen; beraz, auzoko prostitutek hara eramaten zituzten bezeroak, txortan egiteko. Ahalik eta denbora gutxien ematen nuen gelan. Herrira nindoala, larruazala oraindik bero eta leun neukan bainuarengatik.

Beraz, 18:30ean, tabernako ohiko aulkian nengoen eserita. Betiko bezeroak geunden, hamabi inguru ordu horretan, erlaxatuta eta giro atseginean, zortziak jotzean etorriko zen jende-

tza heldu baino lehen. Barra txikiaren inguruan egoten ginen. Gero, billar mahaietara hurbiltzen ginen. Etxeko araua: irabazten zuenak jarraitu egiten zuen. Gure izenak arbelean idazten genituen, eta, ondoren, txanda itxaroten genuen. Erronkariak jokoa ordaintzen zuen, eta, beraz, ona izanez gero, gau osoa jokoan ematen zenuen.

Gau horretan alimaleko nenbilen. Emakumea billar-gelan agertu zen pilota beltza sartu nuenean; zerrendako hurrengo izenak txanponak sartu zituen mahaian. Emakumea bistaz ezagutzen nuen, kale-kantoian zegoen tabernatik –paper margotu erliebeduna eta belus gorrizko tapizak zituen–; gauean joaten ginen, igandero. Billar-gelan, emakumeak beste itxura bat zeukan, itxura ona, eta niri begira zegoen.

Partida ahalik eta azkarren bukatu nuen, larri galdu gabe, eta harengandik gertu geratu nintzen, zutik.

«Nahi al duzu zerbait hartu?», galdetu zidan.

«Nik eskatuko ditut. Zer nahi duzu?», erantzun nion.

«Zuk hartzen duzuna», esan zidan.

Ohiko bezeroa izatearen abantaila zera da: nahiz eta barra gainezka egon, bekain bat altxatu, buruarekin keinua egin, eta botila pare bat Holster Pils garagardo pasatzen dizkizutela besteen buruen gainetik. Tarte batez billar-gelan ibili ginen, besteen «barkatu» entzuten, ukondoak eta billar-makilak saihesten; azkenean, alde egitea erabaki genuen.

Goizegi zen klubera joateko, eta, beraz, kale-kantoian zegoen igande gaueko tabernara joan ginen. Ostiral gauean ere lagun asko zeuden; bikotez eta ikaslez beteta zegoen. Esaten zuten homosexualak joan ohi zirela taberna horretara; ziur aski, horregatik joaten ziren ikasleak, seguru sentitzeko. Nire ametsetako emakumea zen. Pernod eta andere-mahats beltzak edan genituen, John Barry eta Ford Cortinas autoz mintzatu ginen –Mark 3 hobesten zuen– eta zein nahiago?: ile-gomina ala Brylcream? Nik Brylcream nahiago nuen. Ados geunden On Her Majesty's Secret Service zela James Bond-en filmik onena, osotasunean hartuta, George Lazenbyz-ekin obsesionatu ezean. Silkcuts erretzen zituen, Marlboroak ere gustuko zituen, eta bioi



gustatzen zitzaizkigun Old Port zigarro puruak. Klubera joan ginen. Goialdean tipula-pastel frijitu pare bat jan genituen, eta, gero, beheko gela lasaira joan ginen, dantzalekutik gertu.

Goiz ateratzea erabaki genuen; ez litzateke atsegina izango han egotea itxi arte, argiak pizten zituztenean. Ez zinateke han berriro eseriko. Kostata, aterainoko bidea ireki genuen, une ona zen handik irteteko: oraindik zulo beltza zen, beroa, kez beteta, aukeraz josia... Emakumea ibai ondoan bizi zen, herriaren beste aldean. Taxiak hartzeko ilara infernu bat zen, beti bezala. Patata frijituak saltzen zituen gaueko denda zegoen ondoan. Patatarik okerrenak ziren; baina, ordu haietan, beteta zegoen saltokia. Kanpoan, borrokan edo oka egiten ari ziren. Taxian sartu ginen; axola zitzaigun gauza bakarra gu geu ginen.

Haren gelan —nire gela bezalakoa zen, etxearen parekoa— konponketa batzuk eginda zituen: 50eko hamarkadako aktore famatuen paper margotua zuen hiru hormatan, David Bowie-ren afixa handi bat, eta errezel politak; neuk ere erraz eraberri nezakeen magnoliaz eta diseinu arruntez apaindutako nire gela. Azken batean, horixe zen nire lanbidea. Lanpara batzuk zituen, baita kandela batzuk ere. Benetako txokolatea prestatu zuen; ez zen makinetatik ateratzen den berehalako kaka hori. Pakete bat Fox gailera zuen, baita Cointreau botilatxo bat ere. Egun ezin hobe baten bukaera. Are hobe zizudien txokolateari, zigarroei eta laranjazko likoreari esker. Mini-gona eskoziarra askatu nion, artilezko galtzerdi beltzak kendu, ezpainak hanketatik gora eramane...

Ze arraio? Zakil gogor eta handi batek jo ninduen begian!

«Kaka zaharra! Gizonezkoa zara!» Leihotik jauzi egin nahi nuen, garrasika, mugitu ezinik nengoen...

Emakumezko... Gizonezko... Ez zen itxuraz aldatu. Buruko mina neukan, zerbait egin nahi nuen, zerbait esan... Negar-zotinka heldu zidan... «Agerikoa zen...nola ez duzu asmatu?» eta «Maite zaitut, zure emakumea izan naiteke...».

Oraindik ere begi ederrak zituen, marroi sakonak, eta ezpainek txokolatearen eta laranjaren zaporea zuten. «Ze arraio!», esan nuen, «ez naiz inoiz titi-zalea izan...»

**THE DAMNED —**  
*Hara, nor da paranoikoa?*

---



80ko hamarkadan, munduan zehar talde askok Sex Pistols edo-  
ta The Ramones hartu zituzten eredutzat eta punkaren parodia  
egin zuten. Artista batek iturri batetik bakarrik edaten badu,  
azkenean, bere lana mugatu eta txiro bihurtzen da. Horregatik,  
lagun askok punk musika bortitza, oldarkorra eta pobrea dela  
pentsatzen dute. Baina Sex Pistols-en fotokopia egitea ez da  
nahikoa musika interesgarria eta kementsua egiteko; emaitza ez  
da inoiz talde horren mailakoa izango.

Dave Vanian (abeslaria), Captain Sensible (baju-jotzailea –  
Zentzuzko Kapitaina), Rat Scabies (bateria jotzailea – Arratoi  
Sarna) eta Brian James (gitarra jotzailea eta musikagilea) izan  
ziren The Damned (Madarikatuak) taldearen sortzaileak.

Sex Pistols-ek baino lehen, baita The Clash-ek baino lehen  
ere, 1976an plazaratu zuen The Damned-ek lehenengo diskoa, «New  
Rose», eta Ingalaterrako lehenengo punk-singlea izan zen. Pun-  
karen lehenengo albuma, «Damned, Damned, Damned», abesti kemen-  
tsuz beteta dago: probokatzailerak, dibertigarriak, berritzai-  
leak. Taldearen sormena eta askatasuna nabari ziren hasieratik.

Bigarren albuma ahula izan zen, neurri handi batean Pink  
Floyd-en Nick Mason ekoizlearen erruagatik. Taldekideek taldea  
bertan behera uztea erabaki zuten. Horretan ere aitzindariak  
izan ziren The Damned: banatzen zen Ingalaterrako lehenengo  
punk-talde garrantzitsua izan zen. Baina berehala itzuli zen  
The Damned, nahiz eta Brian James gabe. Berriro ere, aitzindari  
izan ziren: berrelkartu zen lehenengo punk-talde garrantzitsua  
izan zen.

Kapitainak gitarra eta teklatuak jotzeko ardura hartu zuen,  
eta talde osoa hasi zen abestiak moldatzen. Urte hartarako,  
«Machine Gun Etiquette» (Metrailetako Etiketa) diskoan aldaketa  
horiek agerian daude. Indar-izpirik galdu gabe, abestiak lehen  
baino anitzagoak dira: poparen, psikodeliaren eta gotikoa-  
ren eraginak ere ditu. «Love Song», «Can't be happy today» eta  
«Smash it up» abestiak bereziki onak dira.

1982an Kapitainak bakarrik ibiltzea erabaki zuen, eta, ha-  
sieran behintzat, arrakasta komertzial handia izan zuen. Haren  
diskoetan The Damned taldekidea izan zela nabari da nolabait,  
baina batez ere pop musika egiten zuen.



Bitartean, The Damned taldeak jarraitzen zuen. Hogeita hamabost urteotan zehar, hamar album plazaratu dituzte, eta munduan zehar eman dituzte kontzertuak. 1996an Rat Scabies talde-tik atera zen, eta Kapitaina itzuli egin zen.


Jarraitzaile askoren ustez, 2008ko «So, who's paranoid?» (Hara, nor da paranoikoa?) taldearen diskorik onenetakoa da. Ohi bezala, taldearen indarraz eta umoreaz gain, era bateko eta besteko eraginak nabari dira. Diskoaren azken abestia, «Dark Asteroid» (Asteroide iluna), Syd Barrett-i eskaintzen dioten omenaldi izugarri ederra da.

Esan bezala, artista batek iturri bakar batetik edaten badu, azkenean, aspertu egiten gaitu. Hogeita hamabost urte daramatza The Damned-ek bere musika indartsua, anitza eta dibertigarria eskaintzen munduari. Iturri asko erabiltzen dituztelako eta musikari eta sortzaile onak direlako, ezinezkoa da talde honekin aspertzea.

Punk-musika ez da inoiz izan "Buaj!" esatea, besterik gabe, eta, horren adibide on-ona da The Damned. Punkaren ezaugarriarik garrantzitsuenetako bat askatasuna da. Txantiloiak erabiltzeak askatasuna murrizten digu, eta aspertzen gaitu. Dibertigarriagoa da The Damned-en askatasunarekin gozatzea.

**SYD BARRETT —**

*Burugabeak barre egiten du*



Pink Floydek «Wish you were here» plazaratu zuen haren ome-  
nez. Bowiek haren «See Emily Play» eta «Arnold Layne» abes-  
tiak grabatu zituen. Baina, hainbat musikariri bezala, Barrett  
abeslari, gitarra-jotzaile eta konpositoreari ustezko istorio  
erromantiko bat dagokio.

Pink Floyd sortu zuen, eta, 1968ra arte, taldea Londonen  
Undergroundeko talderik abangoardistarena zen. Orduan, dro-  
gez jota, lekua utzi zion David Gilmour-i. Bere kabuz bi disko  
egin zituen. 1971n, erotuta, Londonetik atera, sorterrira,  
Cambridgera, itzuli, amaren etxean sartu, eta han bertan hil  
zen 2006an. Beraz, istorioa ez da batere erromantikoa: haren  
sufrimendua eta maite zutenen larritasuna islatzen ditu. Guz-  
tiontzat, talentu handi bat goizegi galdu zen.

Baina, kultura-zaleak garelako, Barrett-en legenda tristea  
baino haren musika axola zaigu. Ziur aski legenda beltzaga-  
tik berriro ere, sarritan pentsatzen da Barrett-en musika osoa  
psikodelikoa zela; drogak, fantasia eta gitarra elkartzen di-  
tuzten abesti zaratzatuak. Egia da Barrett oso gitarra-jotzai-  
le sormenezkoa eta berritzailea zela, eta Pink Floyd-ekin egin  
zuen abestietako asko horrelakoak izan zirela; baina, tamalez,  
musika estilo horretan gutxi grabatu zuten.

Taldearekin grabatu zuen disko bakarrean, «Piper at the  
Gates of Dawn»-en, abesti gehienak pop-kutsukoak dira, hiru  
salbuespen handi hauekin: «Astronomy Domine», «Lucifer Sam»  
eta «Interstellar Overdrive». Garaiko lekukoen arabera, tal-  
dearen kontzertuak ildo horretatik zebiltzan. Antza denez,  
Londonen arrakasta handia zuen Pink Floyd-ek musika abangoar-  
dista horrekin, eta, Londonetik kanpo, aldiz, publikoak taldea  
gorrotatzen zuen.

Berriro ere, eta zalantzarik gabe legenda ditxosoagatik,  
oro har sinetsi ohi da Barretten lan onena taldea utzi zuenean  
amaitu zela. Baina errealtatea oso ezberdina da. Bakarrik  
egin zituen bi albumak zoragarriak dira.

Lehenengoa, «The Madcap Laughs» (Burugabeak barre egiten  
du) bi taldekide ohik —Roger Waters eta David Gilmour— pro-  
duzitu zuten, eta, bigarrena, aldiz, «Barrett», David Gil-  
mour eta Rick Wright taldekide ohiek. Antza denez, Barrett-en  
egoera psikologikoarengatik grabaketak oso zailak izan ziren.  
Abesti batzuetan, musikariek oinarri musikala grabatu zu-  
ten, eta, gero, Barrett-ek gitarra eta ahotso gehitu zizkien.



Gehienetan, Barrett-ek grabatu zuen, eta, gero, beste musika-  
riek ahal zutena egin zuten. Kasu bakar batean egin zuen talde  
osoak grabaketa aldi berean, «Gigolo Aunt» (Izeba gigolo) abes-  
tian.

Hala eta guztiz ere, disko ederrak dira. Melodiak eta ins-  
trumentazioa hurbiltzen eta inguratzen gaituzteu. Doinu gehie-  
nak epelak eta goxoak dira. Ahotso xarmagarria da. «Dominos»  
abestiaren gitarra-solo aldrebasa izugarri polita da, eta, an-  
tza, lehenengo saiakuntzan asmatu zuen. Letra batzuek sinpleak  
ematen dute, eta gero, surrealista bihurtzen dira. Beste asko  
surrealistak dira zuzenean. Nolabait, bi disko horiekin Barrett  
ezagutzen dugula pentsa dezakegu, nahiz eta, ziur aski, inork  
ez zuen erabat ondo ezagutu.

Gaur egun ere, «The Madcap Laughs» eta «Barrett» entzun di-  
tzakegu plazer handiz.

**THE SLITS -**  
*Neska Arruntak*  
-----



Filosofoen arabera, ez dago argi patuak bizitza gidatzen digun ala borondate librea dugun. Batzuen iritziz, jaio baino lehen dena erabakita dugu; besteren esanetan, aldiz, bizitzaren bideak guk geuk aukeratzen ditugu. Auskalo, ez gara ziur egongo.

Baina argi eta garbi dago pertsona eta erakunde batzuek moldekatu egin nahi gaituztela, horretan ez dago zalantzarik. Eta baita enpresa askok ere. Marketinaz baliatuta, sailkatu egiten gaituzte, produktuak errazago saltzeko, haiek esaten duten bezala, guri merkantzia hobeto «sartzeko».

Sail horietan handienetako bat emakumezkoak dira: marketinak —beharbada gizarte osoak bezala— gizonak baino azkarrago sailkatzen ditu emakumeak. Pribilegio hori ospatzeko, The Slits taldeak «Typical girls» eman zigun 1979an. Publizitateak emakumeei buruz erabiltzen dituen topiko batzuk aipatzen dizkigute abestian.

*Neska arruntak azkarregi haserretu ohi dira  
Neska arruntak ez dira euren burua kontrolatzeko gai  
Neska arruntak erraz bereizten dira  
Neska arruntak ez ohi dute argi pentsatzen  
Neska arrunt guztiak aurreikusteko modukoak izaten dira  
Neska arruntek aldizkariak erosi ohi dituzte*

*Ez dira gai erabakitzeko zer arropa jantzi  
Neska arruntak sentiberak izan ohi dira  
Neska arruntak hunkiberak izan ohi dira  
Neska arruntak ankerrak eta sorginak izaten dira  
Bera femme fatale bat da  
Neska arruntek senarrari lagundu ohi diote*

*Nork asmatu zuen neska arrunta?  
Nork aterako du bertsio berria eta hobetua?  
Hori beste marketin-taktika bat da  
Neska arruntak mutil arrunta lortzen du*

*Neska arruntak mutil arrunta lortzen du  
Mutil arruntak neska arrunta lortzen du*



The Slits-en taldea, salbuespen batekin, emakumeez osatuta zegoenez gero, abestiaren ironia eta gizartearen kritika berehala ulertzen ziren. Taldearen izena ere lagungarria zen haien jarrera ulertzeko: «slits» hitzak zirritu esan nahi du ingelesez, hau da... Hara, badakizue.

Ordura arte, oso emakume gutxi zebilen rock-musikan, abeslari batzuk kenduta. Punkaren askatasunak eta feminismoak egoera hori aldatzen lagundu zuten. Hala ere, gaur egun ere emakume gutxi dabilta rock-musikan, eta haiek ere, sarritan, betiko topikoak entzun behar dituzte. (Anari Euskal Herriko PJ Harvey al da? Horrela sailkatu izan dute da emakumezko gitarra -jotzailea delako, besterik ez. Kazetaritza alferra da hori).

Nahiz eta The Slits punkaren lehen uneetako taldea izan, eta 1977an The Clash-ekin «White Riot» bira egin, 1979ra arte ez zuen «Cut» LPa plazaratu. Letretan bezala, punkaren askatasuna musikan ere nabari da. Ez dago gitarra zaratatsurik, ezta rock-erritmorik. Reggaearen eragina entzuten da baterian, Viv Albertine-k oso gitarra estilo originala du, eta Ari Up-en ahotsa bakarra da munduan.

«Cut» argitaratu ondoren, musika gero eta esperimentalagoa egin zuen taldeak, eta pare bat album gehiago atera ondoren, 1982an The Slits desagertu egin zen. Baina gauzak zer diren, gizakiok nolakoak garen... taldea berriro bildu zen 2006an, eta 2009an disko berri bat plazaratu: «Trapped Animals».

**THE JAM –**  
*Metro geltokian gauerdian*



Urrun dauden trenetan sartzen ari diren urrutiko ahotsen oihartzuna: trenek etxera eramango dituzte, ahotsek maite dituztenengana, ahotsak betiko maiteko dituztenengana. Eskailera beiraztatuek eta zikinek nire urratsak errepikatu, eta nire pentsamenduak islatzen dituzte, hotz eta babesgabe, ia biluzik daude, goxoki-paperak eta goizeko egunkaria izan ezik. Kotxe batek Jones jauna harrapatu du, heriotza eta tristeziaren titularrek biharko albisteak zabaltzen dituzte, eroak kaleetan zehar.

Eta metro-geltokian nago, gauerdian.

Diru xehe bila sakelari, eta Erregina atera dut, irribarrez, li-murtzaile. Dirua sartu dut, eta nire atzetik sari bat atera da. Zurrumurruak itzaletan, ahots latzak, garrasika; nire zain, gorroto bizian. «Aizu, mutil!», oihu egin didate, «dirurik bai?» Eta nik: "Diru pixka bat badut, eta etxera eramateko curry bat, etxera noa, emaztearengana, mahaia prestatzen ari da, nire zain dago, badakizue, edalontziei distira atera eta botilari kortexoa kendu".

Eta metro-geltokian nago, gauerdian.

Lehenbizi, ukabil bat sentitu nuen, eta gero, ostikada; ondoren, haien arnasa usain nezakeen. Taberna-usaina zuten, eta kartzelarena, eta eskuin muturreko mitin gehiegi jaso dutenena. Bizitzak nire inguruan igeri egin zuen, begirada bat bota nuen, eta bizitzan beran ito egin nintzen. Larru marroiaren usainak eguraldiarekin bat egin zuen; nire begiak, belarriak, sudurra eta ahoa bete zituen: orduan jada, ezin nuen ikusi, entzun, hitz egin...

Eta metro-geltokian nago, gauerdian.

Han, lur gainean etzanda, ero ateo batek egindako pintada izan zen ikusi nuen azken gauza: «Jesusek salbatzen gaitu». Eta British Rail-ek afixa batekin honela zioen: «Egin ihesaldi bat egin, eta opor-egun merke batekin gozatu gaur bertan!» Nire bizitza gogoratu nuen, eta emaztea ere bai, nire giltzak hartu zituztelako ni naizela pentsatuko du, eta ardoa indarrik gabe egongo da, eta currya hotz.

Eta metro-geltokian nago, gauerdian.

Ez dut metro-geltokira joan nahi, gauerdian.



MANCHESTER 1983-86

---



*Hacienda*

Duela 33 urte, orain bezala, Manchester izugarri hiri itsusia zen: zatarra, iluna, goibela. Hori bai, musikazale izanez gero, oso hiri interesgarria zen bizitzeko.

Punkaren ondoren, Ingalaterrako hiririk bizienetakoa zen. Buzzcocks-ek punk erromantikoa eta zapuztua eman zigun; *The Fall*-ek, berriz, musika gordina, eta Mark E. *Smiths*-en ahots arraro eta hipnotikoa. Eta *Joy Division*-en iluntasunak alaitu gintuen; gutako batzuk, bederen.



*The Buzzcocks*

Nire herri txikitik filologia ikastera joan nintzen. Baina, munduko musikaren hiriburutzat genuen hura, eta, poesia baino, musika modernoa ikasi nuen. Osaba Lou-k abesten zuen bezala, olerkari guztiek bertso-arauak ikasten zituzten, eta emakumeek begi-keinuak egiten zituzten... Egia esan, bertso-arauak bai, horiek ikasi nituen; baina emakumeek ez zidaten begi-keinurik egin. Tira, ez asko.

Nire luxuzko bizimodua ordaintzeko, Haçienda Klubean lan egin behar izan nuen zerbitzari. Nahiz eta lan arrunta izan, abantaila pare bat zeukan: edozein kontzertu dohainik ikustea, eta jende asko ezagutzea, eta horien, artean musikari ugari.



*Joy Division*

Musika-taldeen aldean, klubak oso garrantzitsuak ziren garai hartan. Klubik garrantzitsuena Haçienda zen. Factory Records-ek ireki zuen Haçienda 1982n. Izena Huxley-ren liburu batetik atera zuten; drogekin harreman handia zuen hautaketa hark.

Behin baino gehiagotan Karl Burns, *The Fall* eta *PIL* taldeen bateria-jotzailea, etorri zitzaidan substantzia bereziak saldu nahian. Baina, batetik, ez neukan interesik —garagardoarekin nahikoa izaten nuen—, eta, bestetik, banekien substantzia horiek sukaldea garbitzeko hautsekin nahasten zituela.

Baina Haçienda-ren ideia nagusia musika eta modernitatea bultzatzea zen, non eta Manchesterren, hiri handi, itsusi eta industrial hartan. Orduan, langabezia zen hiriko enpresabururik handiena, eta Haçienda lantegi ohi batean ezarri zuten. Ederra zen: bikaina, industrial, handia.

19 urterekin den-dena posible da. Ez dago zalantzarik, edo, zalantzarik baldin badago, zalantzak berez zalantzatiak dira eta erraz gaindi ditzakegu. Dirua irabazi behar nuen, eta horregatik lan egiten nuen Haçienda-n. Baina ordu asko egin behar izan nituen diru hori irabazteko. Originaltasunari ihesi, beti



bezala, eta akats berri baten atarian, berriro ere, klub berri bat irekitzea erabaki nuen.

Lokala aurkitu nuen, erdigunean, eta, printzipioz, as-  
tean behin erabiltzeko akordio bat egin nuen jabearekin. Baina  
banekien, arrakasta lortzeko, oso kontzertu on batekin ireki  
behar nuela kluba. Nola lortuko nuen taldea? Galde eginez lor-  
tuko nuen, jakina. Bestela, ez nuen kluba irekiko, ez horixe.

*The Smiths*-en lehenengo diskoa, «*Hand in Glove*», atera  
berria zen, eta taldekideak bistaz ezagutzen nituen, Haçienda-  
tik, noski. Abestia izugarri ederra, erromatikoa eta misterioz  
betea iruditzen zitzaidan.

Beraz, gau batean, Morrissey-ri hurbildu nintzaion, eta  
esan nion *The Smiths* oso talde ona iruditzen zitzaidala. Gure  
Stephen-ek erantzun zidan berari ere oso talde ona iruditzen  
zitzaiola. Barre egin, konfiantza osoa instant batean galdu, eta  
hanka egin nuen. Ezin nuen kluba *The Smiths*-ekin ireki, eta,  
gainera, talde ospetsu bihurtu zen handik oso gutxira.

Ezin nuen gehiago itxaron, ez nuen lokalaren jabeare-  
kin akordioa galdu nahi. Mark E. Smith-ekin hitz egingo nuela  
erabaki nuen. Haçienda-ren lurpeko tabernan (*The Gay Traitor*,  
Anthony Blunt espioiaren omenez) hurbildu nintzaion. «Momentu  
bat», esan zidan, eta beste bi gazterekin hitz egiten jarraitu  
zuen.

Bistaz ezagutzen nituen. *The Happy Monday* anaiak ziren.  
Beti urduri zeuden, eta egun hartan, ohi baino urduriago. Mark  
E. Smith-ek musikan hasteko delinkuentzian aritu behar zutela  
azaldu zien; bestela, diruarena ezinezkoa izango zela. Nola-  
bait esatearren, gaia pribatua iruditu zitzaidan, eta, berriro  
ere, alde egin nuen.

Azken aukera bat neukan. *Big Flame* taldeko Dil lagun nuen,  
eta baiezkkoa eman zidan, eta eskerrak... ala ez. Hogeita bost  
lagun geunden klubean astearte hotz hartan, eta, noski, ez  
nuen nahi nuen arrakasta lortu. Beste bi gaez ireki nuen,  
eta, azkenik, nire diru guztia galdu baino lehen, beharrezko  
erabakia hartu nuen. 19 urterekin ere, batzuetan, den-dena ez  
da posible.



*Big Flame*

Handik aste batera, *The Gay Traitor*-era joan nintzen lagun pare batekin. Gutaz gain, Karl Burns, nola ez, eta *New Order* taldeko Peter Hook zeuden. Hook-ek gu bertan lotzea iradoki zuen: taberna ez zen asteazkenean irekitzen, eta, ondorioz, bi egun pasatuko genituen han behean. A ze umorea! Baina, osaba Lou-k abesten zuen bezala, ezin zenuen zerbaitetan parte hartu eta gero parte-hartze hori gorroto izan.

GANG OF FOUR —  
Armada erabilgarria da





Terrorismoa arazo larria izan da, eta izaten ari da lurralde askotan. Milaka pertsona hil dira, horren ondorioz, eta ulergarria da, hortaz, hedabideetan albiste garrantzitsua izatea.

Urtero, gizonak milaka emakume hiltzen dituzte etxean. Bortizkeria matxistak terrorismoak baino askoz pertsona gehiago hiltzen ditu; baina, antza, berri hori ez da terrorismoarena bezain erakargarria, ez ditu hainbeste egunkari salarazten.

Hiltzaile matxista horiek ez dira bat-batean erotzen, kontu zahar eta sakona da haien maltzurkeria. Gizartean, oro har, arrunta da emakumeen gutxiagotasuna onartzea, baita hura sustatzea ere. Aldi berean, gizonen indarkeria, onartu ez ezik, askotan miretsi ere egiten da.

Gang of Four taldeak gai horri buruzko abesti batzuk eman zizkigun, eta horien artean, 1981eko «He'd send in the army» (Armada bidaliko luke).

*Familiaburuak aginduak ematen ditu,  
Azkenean, esaten duena da bete beharrekoa  
Sistema hau ondo eraikita dago  
Emaztea denarengatik dago harekin zorretan*

*Armada erabilgarria da  
Gizartea ezinegonean dagoenean  
Kaixo, mutilak, borrokarik bai?  
Aizue, mutilak, borrokarik bai?*

*Kideekin elkartu  
Elkarrekin duzuen etsaiaren aurka  
Soldadu soila ez da horrelakoa*

*Armek betetzen dute haren denbora guztia  
Lanik gabe gaizki egongo litzateke  
Borroka nahi zuen, eta sortu egiten du*

*Emazteak logelan ordaintzen dio  
Haren nagusiarengandik maila bat beherago dago  
Aginduak bete ala zigorra jaso  
Gizona nagusien aginduak betetzen dituen bezala*

Gang of Four taldea Ingalaterra iparraldeko Leeds-en sortu zen 1977an. Musikarekin zein letrekin, taldearen ideia nagusia gauza guztiak zalantzan jartzea zen.

Taldearen musikak ez zion inoren ildoari jarraitu, eta Gang of Four-ren lehenengo bi albumak originaltasun handikoak dira. Izugarritzko talde zaratatsua izan zen. Funk erritmoa punka-ren indarrarekin eta rock gitarrekin nahasten zuten. Hala ere, Andy Gill gitarra-jotzailea ez zen rock-musikaren topikoetan erori. eta bere solo asko «aurka-soloak» izan ziren: isiltasuna.

Letrei dagokienez, politikaren gertuko gaiak landu zituzten, hau da, egunero gertatu ahal zaizkigun egoerak edota emozioak: langabezia («Paralysed»), amodioa («Damaged Goods»), arrotz sentitzea («At Home He's a Tourist»)...

**WIRE —**

*Do, re eta mi saihestuz,  
bluesak nota horietan jotzen dira eta*

---





1976tik, Wire-k jarraitzaileen gozamina, hedabideetan nahasmena eta kritiketan porrota sortu ditu. Ziurrenik ez da existitzen, musikaren arloan, hainbeste garatu den eta garapen hori hain luzaroan egin duen beste talderik. Eta oraindik ere, lehenengo diskoaren abesteak (adib. «Pink Flag», 1977) zein azkenarenak («Change Becomes Us», 2013) kontzertu zoragarritan jotzen dituzte.

Graham Lewis eta Colin Newman-ekin hitz egin nuen Donostiako Jazzaldia astebete baino lehen.

**Aritz Branton: Wire-k entzuleengan erreakzio zehatz bat sorrarazi nahi du? Lou Reed-ek esan zuen barrea eragitea behintzat espero zuela. Wire-k zertarako balio du egun txar batean, eta egun handi batean?**

GL: Egun txar batean, zero grisa dugun egun batean, espero dut filtro hori bat jarri eta ikuspuntu ezberdin bat eman dezakegula. Egun on batean... «I feel mysterious today, everything is humming loudly!» (gaur misterioitsu sentitzen naiz, eta guziak burrunba egiten du!)

CN: Ahalegin handia egiten dugu nostalgia-talde bat ez izateko; gaur egungo egitasmo artistikoa izateak eta garaikideak izateak harro sentiarazten gaitu.

**AB: Ideiak nondik etortzen zaizkizue? Nondik datorkizue «hari hori»?**

GL: Inspirazioa ausazko aurkikuntzetatik edota aurkikuntza txikietatik etor daiteke... Jakin-minak eta jarrera irekia izateak ere harrera-bide ezin hobeak dira inspirazioarentzat.

CN: Inspirazioa? Nork daki zer den hori. Niretzat, hobe da horren gainean ezer gutxi hausnartzea!

**AB: Zuen abestien abiapuntua zerbait fisikoa da ala konposizioek hori baino oinarri kontzeptualagoa dute? Esaterako, osagai batzuk erabili nahi dituzue abestia idatzi aurretik?**

CN: Nik ez dut inoiz horrela pentsatzen. Niretzat, konposatzea halako «garunik gabeko» senezko ekintza bat da. Egin baino lehen ez dut pentsatzen, eta egin ondoren ere, ezer gutxi. Oso azkar konposatzen dut, ordea, eta, beharrik izan ezean, ez dut ezer idazten! Letrak idazten ditut (normalean, Graham-enak izaten dira), eta aurrera! Ez dugu gauza horien gainean hitz egiten. Gustu anitzak ditugu taldean, baina estetika batekin bat gatoz, nahiz eta hori zabal samarra izan!

**AB:** Hasieran, Wire taldea Pink Floyd punki bat zela esaten zen, eta zuen lehenengo diskoari «Pink Flag» izenburua jarri zenioten. Izen horrekin, musika-mundu britainiarrean dauden aurreiritziak eta handikeria pikutara bidali nahi zenituzten?

GL: Guk musikaren bidez artea bultzatu nahi genuen, eta hedabide britainiarretan hori ez ziguten barkatu. Haien pedanteria ezjakintasunean eta harrokeria tuntunean oinarritzen zen; baina guretzat hori ez zen ezustekoa izan, arte-eskolak erantzun horri aurre egiteko prestatu ninduen aspaldi.

CN: Ez da inoiz erraza izan Wire kutxa batean sartzea. Hasieran argiegiak ginela ere esaten zuten! Baina, azken urteotan, harrera on samarra izan dugu Britainian.

**AB:** Donostiako Jazzaldian joko duzue, ziur aski inork jazz egiten duzuenik pentsatzen ez duen arren. Wire duela ia berrogei urte sortu zenuten arren, oraindik ondo pasatzen duzue zuzenekoetan? Ala konposatzea eta grabatzea interesgarriagoa egiten zaizue?

GL: Wire-rekin hasi ginenean, batzuek jazz-jotzaileak ginela esaten zuten! Nik ondo hartu nuen. Gure jarrerari bat zetorren, eta gure idazteko eta moldaketak egiteko modu abstraktuarekin ere bat egiten zuen. Zuzenean jotzearen alde fisikoa eta askatasuna maite ditut... Terapeutikoa da oso!

CN: Zuzenean jotzeak eta grabatzeak alde dibertigarriak eta alde serioak dituzte. Uste dut zuzeneko nahiko talde ona garel, eta guretzat zuzenean jotzea oso garrantzitsua da.

**AB:** Birak egitean, bisitatzen dituzuen herrialdeen hizkuntzak ez jakitea eta hango kulturak ez ezagutzea akuilu izaten da inoiz?

GL: Gauzak gaizki entzutea edo gorputz-hizkuntza irakurtzeko aukerarik baino ez izatea dibertigarria izan daiteke... Jendearen joan-etorriak ikustea asko gustatzen zait!

CN: Ez dut uste inork espero duenik guk hango hizkuntzan abestuko dugunik, eta ez dut uste haren hizkuntzako kultura bakarrik nahi duen inork guregan interesa duenik. Ziurrenik, kulturaren definizio estua dutenek ez dute gudan inongo interesik. Tokion adibidez, entzuleek egiten duguna "ulertzen" dutela iruditzen zait beti, baina gehienek ez dute ingelesez tutik ere ulertzen!

**AB:** Kontzertuen abesti-zerrendak ezarritako irizpideen arabera egiten dira, ala erabakiak modu intuitiboan hartzen dituzue?

GL: Wire-n prozesua bera oso intuitiboa da. Abesti-zerrendak kontzertu dinamikoak osatzeko prestatzen ditugu. Normalean, grabatu gabe dagoen lan berria jotzen dugu, azken diskoan dauden abesti batzuk, eta, gero, abesti zaharrak, berrinterpretatzen ditugunak, dugin soinu-norabidearekin bat egingo dutelakoan... Jazzaren antza ez al du horrek?

CN: Garatzen dugun oinarritzko abesti-zerrenda bat badugu, baita beste abesti asko ere, eta azken horiek ere jotzen ditugu kontzertu fresko eta interesgarriak egiteko. Emanaldiak hobetzen dituzte!

**AB: Wire-rekin ez dago jakiterik, baina zer espero dezakegu?**

CN: Gure hurrengo ekintza «Document & Eyewitness» diskoa birplazaratzea izango da, abuztuan. Eta abenduan ere, gure «DRILL FESTIVAL» egingo dugu Britainiako hiri batean. Oraintxe bertan ezin dizut gehiago esan. 2015eko apirilean Wire-n disko berria aterako da, grabaketa nagusia egin dugu; baina hilabete batzuk beharko ditugu ekoizpenerako.

**AB: «Do, re eta mi saihestuz, bluesak nota horietan jotzen dira eta.» Wire-k gauza batzuk saihesten ditu haren musikan edo letretan, edota gauza batzuk bere buruari debekatzen al dizkio?**

GL: Bai, geroz eta gauza gehiago ez dira Wire-ren lanetan agertzen. Metafora berrien ehiza bukaezina da, eta topikoak birziklatzea kontu zintzoa eta beharrezkoa da pop-musikan! «Lowdown» taldearentzat idatzi nuen lehenengo testua izan zen, eta, nahi gabe, manifestu moduko bihurtu zen. Aipu hori Atik Bra joateko ibilbiderik laburrenaz aritzen da. Gure kasuan, Wire-n musika egiten hasi ginen rock'n'roll eta blues musiken egiturak eta jarrerak batere hartu gabe.

Wire-k Jazzaldian eskainitako kontzertua bizia, zaratatsua, anitza eta aurreikus ezina izan zen (oso abesti ezagun gutxi jo zituzten) eta, horrelako gehiago nahi ditugu, jazza izan ala ez.



WIRE —  
*Zaharrek berri*

---



Mundua amaitzear dago. Kongon, Libian, Sudanen, Afganistanen, besteak beste, gerrek herritarrak hiltzen, bortxatzen eta mutilatzen dituzte, baita herrialdeak suntsitu ere. Alabaina, gatazka horiek hedabideetan gutxitan agertzen dira, lehenengo unearen zirrara, berritasunaren emozioa behin desagertuta.

Zoritxarrez, mundua amaitzear egon da beti. Wire taldeak «Reuters» abestia idatzi zuenean, 1977an —punkaren unerik berroenean— Etiopian, Guatemalan, Ekialdeko Timorren, eta, nola ez, Kongon gerran zeuden.

Abestiaren izenburua berri-agentzia ospetsuenaren izenetik dator: Reuters, alegia.

*Tamalez, gure berriemaileak hitz egin behar digu  
garai ezeonkor bati buruz, dena ez dago ondo ...*

*Mugimenduak daude mugetan  
Arazoak daude mendietan  
Janaria eskasa da, delituak bikoiztuak dira*

*Gobernua erortzean, prezioak igo egin dira  
Zauritu kopurua handitzen da etsaiek bonbardatu ahala  
Giroa osasungaitza da, euliak eta arratoiak ugaritu dira  
Eta, lehenago edo beranduago, amaiera iritsiko da*

*Hemen zuen berriemailea, zinta amaitzear duela,  
Gero eta tiro gehiago entzuten ari dira, arpilaketak,  
sua, bortxaketak...*

(Oharra: garai hartan, zintak erabiltzen ziren elkarriketak eta berriak grabatzeko, gaur txipak erabiltzen diren bezala.)

Wire punkaren aitzindarietako bat izan zen. Eta, oraindik ere, talde aitzindaria da, nahiz eta punkaz ahaztu zen. Hara! Eta noiz? 1978tik aurrera? Baina punkaren iraunkortasunari buruz, beste batean hitz egingo dugu.

Taldea 1976an sortu zen Londonen. Hasieratik ikusten zen Wire ez zela edozein punk-talde. Haien abestiak laburrak ziren, bai. Lehenengo diskoan, «Pink Flag», 21 abesti daude. Gitarren hotsak indartsuak ziren, bai. Erritmo gehienak azkarak ziren, bai. Baina disko horretan, ezusteko batzuk ere bazeuden. Esaterako, letra gehienak —«Reuters» ez bezala— enigmatikoak ziren. Erritmo batzuk exotikoak egiten zitzaizkigun, esaterako: «Three Girl Rhumba» eta «Brazil». Abesti batzuk ez ziren azkarak, «Lowdown» eta «Strange», kasu. «Mr. Suit» abestiak «ohiko» punkari parodia egiten zion...

Talde minimalista izan zen garai hartan, batez ere, eta isiluneak uztea ez zen punkaren ezaugarririk handienetako bat.

«Pink Flag» disko izugarri ona da, eta hurrengo biak are hobeak dira: «Chairs Missing» eta «154». Punkaren topikoetatik urruntzen ziren disko horietan, eta, indarra galdu gabe, bide berriak urratzen zituen Wire-k: musika esperimental, elektronikoa, erritmo aldakorak, popa, «grunge» musika Nirvanak asmatu baino 15 urte lehenago («Too Late»).

«154» plazaratu ondoren, taldeak zortzi urteko eten bat egin zuen. 1987an itzuli zen, «The Ideal Copy» diskoarekin. Orduz geroztik, beste zortzi album eman dizkigu, eta bakoitzak bere ezaugarri bereziak dauzka. Ez dute formula bat bakarrik erabiltzen, eta gaur egun ere, talde berritzailea da.

Gaur egun ere, Wire-n kontzertuak bereziki kementsuak izaten dira.